

Koiuntura di-da batean

2019ko iraila

Aurkibidea

1. EAEko BPGaren aurrerapena
 2. Gizarte S. afiliazioa
 3. Inflazioa
 4. Ingurunearen hazkundera
 5. NDFren aurreikuspena
 6. Enpresen konfiantza
- Eranskina

1. EAEko ekonomiak hazkundera egonkortu zuen bigarren hiruhilekoan.

Industria zertxobait suspertu dela eta eraikuntza apaldu dela hauteman da.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa tasa altuetan hazi da.

Igoera horren zati esanguratsu bat zaintzaile profesionalak ez diren zaintzaileen egoera berriari zor zaio.

3. KPIa %0,8an kokatu zen uztailean.

Estatuarentzat argitaratu den abuztuko aurrerape-nak iradokitzen du hileko horretan inflazioa jaitsiko dela.

4. Aldaketa gutxi Europako ekonomiaren bilakaeran.

Alemanien ahultasuna Espainiaren eta Portugalen datu onei eta Frantziaren hobekuntzari kontrajartzen zaie.

5. Beheranzko zuzenketa txikia munduko ekonomia- rentzat.

Azaleratzen ari diren herrialdeak aurreko txostenean aurreikusi zena baino gutxiago haziko dira.

6. Zerbitzuek industriaren ahultasuna konpentsatu dute.

PMI adierazle konposatuak iradokitzen du Europako ekonomiaren hazkundera ahula dela oraindik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

EAEko ekonomiak hazkundera egonkortu zuen bigarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek argitaratzen duen kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du EAEko ekonomia %2,3 hazi zela bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan neurtuta. Balio horrek lehen hiruhilekoarena berdindu du. Beraz, badirudi EAEko ekonomiak duela urtebete luze hasi zuen moteltzeko joera galgatu duela eta hazkunde erritmoan egonkortasuneko fase batean sartu dela. Bigarren hiruhilekoaren datu aurreratua bat dator Ekonomia eta Plangintzak epealdi horretarako ezagutarazi zuen aurreikuspenarekin. Hiruhileko arteko terminoetan, datu aurreratua %0,6an kokatu da, hots, aurreko emaitza baino hamarren bat beherago. Hala ere, tasa hori aurreko bi hiruhilekoetakoa baino hamarren bat gorago dago.

Barne produktu gordina


Hiruhileko arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskura dagoen informazioak iradokitzen du hazkundera sektore guztien portaera onari zor zaiola, salbuespen bakarra lehen arloa delarik. Orobat, industriaren susperraldi arina eta eraikuntzaren moteltzea haute-man dira.

Enpleguari dagokionez, bigarren hiruhilekoan hazkunde tasa %1,7 izan zen, urte hasierakoa baino hamarren bat txikiagoa eta azken lau urteko emaitzarik txikiena. Halaber, datu hori Ekonomia eta Plangintzaren aurreikuspena baino hamarren bat txikiagoa da. Halere, itxurazko produktibitatearen irabazia sei hamarrenetara handitu zen eta aurreko bi epealdien emaitza hobetu zuen. Hiruhileko arteko terminoetan, enpleguaren igoera %0,4 izan zen. Tasa hori lehen hiruhilekoarena baino zertxobait handiagoa da, baina azken hiruhilekoetan, gorabehera txikiekin, jaso direnen antzekoa da.

Enpleguaren bilakaera

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa tasa altuetan hazi da

Gizarte Segurantzako afiliazioa. Guztiak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzako afiliazioa. Profesionalak ez diren zaintzaileak kenduta
Urte arteko aldakuntza tasa






Gizarte Segurantzako afiliazioaren abuztuko datuek aurreko epealdietako emaitza onak baieztatu zituzten, urte arteko gehikuntza tasa %2,2an kokatuta. Hala ere, gogoratu behar da zenbaki horiek Mendekotasunaren Legearekin zerikusia duen eta profesionalak ez diren zaintzaileei eragiten dien araudi aldaketa batek baldintzatu dituela. Izan ere, afiliatu guztien kopurutik profesionalak ez diren zaintzaileak kentzen badira, afiliazioaren gehikuntza %1,4ra mugatzen da. Zaintzaile horietako gehienak emakumeak dira. Beraz, kolektibo horren urte arteko tasa (%3,3) askoz ere txikiagoa da (%1,8) goranzko efektu hori zuzentzen bada.

Gizarte Segurantzako afiliazioa. Emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioa. Profesionalak ez diren emakume zaintzaileak kenduta
Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioa. Zerbitzuak
 Urte arteko aldakuntza tasa

Gizarte Segurantzako afiliazioa. Zerbitzuak profesionalak ez diren zaintzaileak kenduta
 Urte arteko aldakuntza tasa


Apirilaren 1etik aurrera, Estatuko Administrazio Orokorrek pertsona horien kuotak ordaintzen dizkio Gizarte Segurantzari. Lagun horiek osasun jarduera eta gizarte zerbitzuak delako adarrean sailkatuta daude. Beraz, beharrezkoa da bereiztea zerbitzu guztien aldakuntza tasa kolektibo hori kontuan hartuta (%2,7) edo kontuan hartu gabe (%1,6). Horrek esan nahi du osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuek izan duten 10.425 kotizatzaile berrietatik kopuru handi samar bat profesionalak ez diren zaintzaileak direla, lehenago ere zaintza lanak egiten zituztenak, baina Gizarte Segurantzari kotizatu gabe.

Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak


	2018ko abuztua	2019ko abuztua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	936.334	956.564	20.230
Industria manufakturagileak	175.651	176.006	355
Merkataritza	139.363	139.235	-128
Osasun arloko jarduerak	97.996	108.421	10.425
Administrazio jarduerak	66.486	66.254	-232
Hezkuntza	60.786	63.784	2.998
Ostalaritza	61.067	62.822	1.755
Eraikuntza	55.250	56.629	1.379
Lanbide jarduerak	54.336	55.604	1.268
Administrazio publikoa	47.025	47.611	586
Garraioa	41.659	42.592	933
Etxeko langileak	30.559	29.719	-840
Bestelako zerbitzuak	26.389	26.303	-86
Informazioa eta komunikazioa	22.220	23.123	903
Finantza jarduerak	18.075	17.954	-121
Jarduera artistikoak	14.059	14.650	591
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.753	12.729	-24
Ur horniketa	6.273	6.582	309
Higiezin jarduerak	3.990	4.124	134
Energia horniketa	1.780	1.791	11
Erauzketa industriak	565	572	7
Lurraldez kanpoko erakundeak	52	59	7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

INFLAZIOA

KPIa %0,8an kokatu zen uztailean

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko KPI indizeak %0,8an jarraitu zuen uztailean. Beraz, tasa apalei eutsi zien, apirilean jaso zuen %1,7 hartatik oso urrun. Oso litekeena da balio hori are gehiago apaltzea abuztuan, Estaturako argitaratzen den adierazle aurreratua bi hamarrenetan jaitsi delako hileko horretan, argindarraren salneurriak bizi duen merkatzearen ondorioz.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko uztaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	0,8	0,8
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,4	0,0
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,3	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,7	0,7
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	-0,3	0,0
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	0,6	0,0
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	-1,0	0,0

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Zehazkiago adierazita, prezioek maila apaletan jarraitu zuten, bereziki etxebizitzaren taldeari esker, talde guztien artean emaitza txikiena jaso baitzuen, %1,8an kokatuta, hots, ekainean markatu zuena baino lau hamarren beherago, gasaren salneurriak izan zuen egonkortasunaren ondorioz. Aitzitik, urte arteko tasaren igoeran eragin handiena izan zuten taldeen artean, garraioarena azpimarratu behar da, bere urte arteko tasa %1,7tik %2,1era igo zuelako, petrolioak uztailearen hasieran balio altuagoak izan zituelako, nahiz eta ondorengo egunetan zerbait merkatu zen. Osagai horretaz gain, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak aurkeztu zuen gehikuntza ere nabarmendu behar da, aurreko hilekoaren %0,3tik uztaileko %0,6ra igaro zelako, fruten beheranzko bilakaerak azken epealdi horretan galgatu zelako.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko uztaila


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,8	0,5	1,0
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,6	0,9	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,3	0,5	2,7
Jantziak eta oinetakoak	1,0	0,9	1,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-1,8	-1,7	1,5
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,6	0,5
Osasuna	0,4	0,9	0,7
Garraioa	2,1	0,5	1,0
Komunikazioak	0,3	0,2	-2,5
Aisia eta kultura	0,2	-0,3	-1,0
Hezkuntza	0,8	1,0	-0,7
Jatetxeak eta hotelak	2,1	2,0	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,3	1,3	1,6

Iturria: INE eta Eurostat.


BPG-AREN HAZKUNDEA

Aldaketa gutxi Europako ekonomiaren bilakaeran

Euroguneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Europar Batasuneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Eurostatek argitaratu dituen datuek adierazten dute herrialde europarrek, oro har, hazkunde erritmoari eutsi ziotela 2019ko bigarren hiruhilekoan, urte hasierako galgatzearen ondoren. Apaltzea zertxobait biziagoa izan da Europar Batasunean, gehikuntza tasa bi hamarrenetan gutxitu zuelako eta %1,4ko datua jaso zuelako. Emaiz horren zati handi bat Erresuma Batuen ondorioa da, urte hasieran %1,8 hazi eta gero bigarrenen %1,2 baino ez baitzen handitu. Hala ere, badirudi datu ezohikoa lehen hiruhilekoarena dela, Brexitarengatik etor daitezkeen eraginei aurre egiteko erosketak aurreratu zirelako. Beste aldetik, Eurogunea %1,2 hazi zen, azken urteetako zenbaki txikienetako bat delarik, aurreko epealdian eskuratutakoa baino hamarren bakar bat gutxiago den arren. Eremu ekonomiko horren barruan, bilakaera kontrajarriak hauteman dira herrialde nagusietan, zeren eta Alemaniaren ahultasunarekin batera (%0,4) Frantziaren sendotzea (%1,4) gertatu delako.


Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Italiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Erresuma Batuko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko herrialdeen artean, Italiak erakutsi du portaera okerrenetako bat, hiru hiruhileko jarraian ez baitu hazkunde tasa positiborik eskuratu. Gertakari politikoez eta Europako erakundeekin esparru fiskalean izan dituen tentsioek kalte egin diote ekonomia horren bilakaerari. Txanponaren aurkia Iberiar penintsulako bi bazkideek eskaini dute, beste herrialde batzuekin batera. Izan ere, Espainiak %2,3ko aldakuntza tasa jaso zuen aurreko urteko epe beraren aldean, azken bi hiruhilekoetako emaitzetatik asko urrundu gabe. Portugal, berriz, %1,8 hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurreko datua berdinduz.

Oro har azalduta, Eurogunea barne eskariari esker hazten ari da, kanpo saldoak azken bi hiruhilekoetan orekan egon den bitartean, BPGari ezer batu edo kendu gabe. Kontsumo pribatua modu egonkorrean hazten ari da eta kapital eraketa gordina da, bereziki izakinen aldakuntza, jardueraren urte arteko tasa baldintzatzen duena. Eskaintzaren aldetik, manufaktura oso narriadura bizia (%-1,6) izan zuten bigarren hiruhilekoan, hein batean zerbitzueta adar batzuek izan zuten bizitasunak konpentsatu zuena. Azkenik, enplegua BPGaren erritmo berean (%1,2) handitu zen epealdi horretan. Beraz, itxurazko produktibitatearen irabazia hutsala izan zen, beste hiruhileko batez.

Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Portugaleko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




NDF-REN AURREIKUSPENAK

Beheranzko zuzenketa txikia munduko ekonomiarentzat

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) munduko ekonomiarentzako aurreikuspen berriak argitaratu zituen uztailean. Beraietan, hamarren batean jaitsi zuen apirilean aurkeztu zuen aurreikuspena. Beheranzko zuzenketa hori bai 2019ko hazkundean bai 2020ko aurreikuspenean gauzatu da. Erakunde horrek aipatzen dituen arrazoiak honako hauek dira: AEBek beste herrialde batzuekin, baina nagusiki Txinarekin, daukan muga zergen gerra, teknologiaren hornikuntzaren kateei kalte egin diena, eta BPGa aurtengo lehen erdia hasieran uste zena baino gutxiago hazi zela egiaztu izana. Merkataritza tentsioak eta inflazio apala premiazko arreta gunetako bi dira.


NDFren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			2019ko apirilko txostenarekiko aldeak	
	2018	2019	2020	2019	2020
Munduko ekonomia	3,6	3,2	3,5	-0,1	-0,1
Ekonomia aurreratutak	2,2	1,9	1,7	0,1	0,0
AEB	2,9	2,6	1,9	0,3	0,0
Eurogunea	1,9	1,3	1,6	0,0	0,1
Alemania	1,4	0,7	1,7	-0,1	0,3
Frantzia	1,7	1,3	1,4	0,0	0,0
Italia	0,9	0,1	0,8	0,0	-0,1
Espainia	2,6	2,3	1,9	0,2	0,0
Erresuma Batua	1,4	1,3	1,4	0,1	0,0
Japonia	0,8	0,9	0,4	-0,1	-0,1
Garatzen ari diren herrialdeak	4,5	4,1	4,7	-0,3	-0,1
Txina	6,6	6,2	6,0	-0,1	-0,1
India	6,8	7,0	7,2	-0,3	-0,3
Errusia	2,3	1,2	1,9	-0,4	0,2
Brasil	1,1	0,8	2,4	-1,3	-0,1

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza.


Ekonomia aurreratuen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Garapen bidean dauden ekonomien BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Orain aurkeztu duen beheranzko zuzenketak azalera-tzen ari diren herrialdeei bakarrik eragiten die. Aitzitik, portaera zertxobait hobea iragartzen du ekonomia garatuentzat 2019an. Hain zuzen ere, NDFk gorantz zuzendu du AEBetarako espero duen hazkunde tasa (hiru hamarren), Espainiarena (bi hamarren) eta Erre-suma Batuarena (hamarren bat), Alemaniakoa hamarren bat gutxitu duen bitartean.

Ikuspegia negatiboagoa da garapen bidean dauden herrialdeetan. Izan ere, Amerika Latinoak, oro har, zortzi hamarrenetan murriztu du espero den gehikuntza tasa, Brasilek eta Mexikok izango duten portaera txarraren ondorioz. Orobat, Errusia aurreko txostenean iragarri zena baino lau hamarren gutxiago haziko da eta bai Txinak bai Indiak, azken horrek bereziki, uste zena baino emaitza apalagoak jasoko dituzte.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: NDF.

ENPRESARIEN KONFIANTZA


Zerbitzuek industriaren ahultasuna konpentsatu dute

PMI konposatua. Eurogunea








Markit enpresak osatzen dituen PMI adierazleen argitaratzeak Europako ekonomiaren ahultasuna baieztatu du, erritmo apaletan hazten baita. Izan ere, Euroguneko adierazle konposatua 51,9an kokatu zen abuztuan. Beraz, hedatze eremuan dago, nahiz eta hedatze apala izan. Datu hori uztailakoa baino zertxobait hobea da, baina azken hilekoetako irudia egonkortasunarena da, ez susperraldiarena. Bi osagaiek bilakaera kontrajarria izan dute. Alde batetik, industriak atzera egin du garbi (47,1 bakarrik abuztuan, baina uztailan baino puntu erdi bat gehiago da), eta beste aldetik, zerbitzuek berriro hobetu zuten beren emaitza eta 53,5 esanguratsu batean kokatu ziren, azken hamabi hilekoetako daturik gorena baita.

Manufakturen PMI. Eurogunea




Zerbitzuen PMI. Eurogunea



PMI konposatua. Alemania**PMI konposatua. Frantzia****PMI konposatua. Erresuma Batua****PMI konposatua. Itaia**

Manufakturen eta zerbitzuen arteko desbideratze hori ekonomia europar nagusietan gertatu da. Beste aldetik, adierazle horiek jasotzen dituzten erantzunak oso ezberdinak dira herrialde batzuetan eta besteetan. Hain zuzen ere, Erresuma Batuak eta Alemaniak okerragotzeko irudia eskaini dute indize konposatuetan. Aitzitik, ekonomia frantziarrak gero eta sendotasun handiagoa erakusten du urtea aurrera doan heinean.

Ekonomia espainiarrari dagokionez, hainbat hilekotan adierazlearen bilakaerak okerrera egin eta gero, abuztuan 52,6ra igo zen, azken lau hilekoetako baliorik altuena baita, zerbitzuen sendotasunari eta industriaren suspertze arinari esker.

PMI konposatua. Espainia

Iturria: Markit

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
BPG	2,9	2,8	2,9	2,6	2,4	2,3	2,3
Familien kontsumoa	3,0	2,6	2,6	2,3	2,6	2,2	—
Administrazioaren kontsumoa	2,4	1,7	2,0	1,2	0,8	2,0	—
Kapital eraketa gordina	3,3	4,1	4,8	4,0	4,1	4,1	—
Barne eskaria	3,0	2,8	3,0	2,5	2,6	2,6	—
Esportazioak	4,7	3,0	2,9	2,2	0,3	-1,4	—
Inportazioak	4,8	3,0	3,1	2,1	0,6	-0,9	—
Lehen arloa	6,8	2,3	0,8	-4,6	17,1	8,4	—
Industria	3,1	2,1	3,1	1,9	-0,2	0,4	—
Eraikuntza	3,8	4,3	4,1	4,8	5,6	5,1	—
Zerbitzuak	2,7	2,9	2,8	2,7	2,9	2,7	—
Balio erantsi gordina	2,9	2,8	2,9	2,6	2,4	2,3	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,7	2,8	2,6	2,5	2,3	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2019ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019			2019	2020
	II	III	IV		
BPG	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
Barneko azken kontsumoa	2,2	2,0	2,1	2,1	1,8
Familien kontsumoa	2,3	2,1	2,1	2,2	1,9
Administrazioaren kontsumoa	1,8	1,8	1,9	1,9	1,7
Kapital eraketa gordina	3,9	3,7	3,7	3,9	3,7
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,5	2,5	2,6	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,4	-0,2	-0,3	-0,3	-0,4
Lehen arloa	-7,6	1,5	-5,3	-0,7	-7,8
Industria	1,2	1,6	1,9	1,3	1,8
Eraikuntza	4,3	3,5	3,3	4,0	2,7
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,3	2,5	2,2
Balio erantsi gordina	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,1	2,0	1,9	2,1	1,8
Enplegua	1,8	1,7	1,4	1,7	1,3

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
Confebask	2,5	—	Funcas	2,2	—
Laboral Kutxa	2,2	2,1	Hispalink (BEGaren aldakuntza)	2,2	2,0
BBVA	2,2	2,0	CEPREDE	2,1	1,8

Iturria: CEPREDE (2019ko uztaila), BBVA (2019ko ekaina), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2019ko uztaila), Funcas (2019ko ekaina) eta Hispalink (2019ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
BPG	3,0	2,6	2,6	2,5	2,3	2,4	2,3
Kontsumo pribatua	2,5	2,3	2,3	2,0	2,0	1,5	1,7
Kontsumo publikoa	1,9	2,1	2,0	2,2	2,2	2,0	1,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,3	7,5	5,3	4,4	4,7	1,2
- Aktibo finko materialak	5,1	5,8	8,4	5,9	4,8	5,4	1,4
- Eraikuntzan	4,6	6,2	7,0	5,7	6,3	4,3	3,4
- Ekipamendu ondasunetan	6,0	5,4	10,6	6,3	2,8	7,3	-1,5
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,5	2,1	2,3	1,5	1,9	0,0	0,1
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	2,9	3,3	2,7	2,5	2,2	1,6
Esportazioak	5,2	2,3	2,6	1,7	1,0	0,0	1,7
Inportazioak	5,6	3,5	5,1	2,3	1,7	-0,5	-0,3

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
AFI	2,4	2,1	IEE	2,1	—
Axesor	2,3	1,9	Intermoney	2,1	1,8
BBVA	2,2	1,9	Repsol	2,2	1,9
Bankia	2,2	1,8	Santander	2,1	1,9
CaixaBank	2,3	1,9	Solchaga Recio & asociados	2,4	2,0
Espainiako Merkataritza Ganbera	2,0	1,9	BATEZ BESTE	2,2	1,9
Cemex	2,3	2,0	Gobernua (2019-04)	2,2	1,9
CEEM-URJC	2,1	1,9	Espainiako Bankua (2019-03)	2,2	1,9
CEPREDE-UAM	2,4	2,0	Europar Batzordea (2019-02)	2,1	1,9
CEOE	2,1	1,8	NDF (2019-07)	2,3	1,9
FUNCAS	2,2	1,8	ELGE (2019-05)	2,2	1,9
ICAE-UCM	2,2	1,9	Consensus Forecast (2019-08)	2,3	1,8

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
AEB	2,4	2,9	3,2	3,1	2,5	2,7	2,3
Txina	6,9	6,6	6,7	6,5	6,4	6,4	6,2
Japonia	1,9	0,8	1,4	0,2	0,3	1,0	1,1
Kanada	3,0	1,9	1,8	2,0	1,6	1,4	1,6
Europar Batasuna	2,4	2,0	2,3	1,9	1,5	1,6	1,4
Eurogunea	2,4	1,8	2,3	1,7	1,2	1,3	1,2
Alemania	2,2	1,4	2,1	1,1	0,6	0,9	0,4
Frantzia	2,3	1,7	1,9	1,5	1,2	1,3	1,4
Erresuma Batua	1,8	1,4	1,4	1,6	1,4	1,8	1,2
Italia	1,7	0,9	1,0	0,5	0,0	-0,1	-0,1
Herbehereak	2,9	2,6	2,8	2,3	2,1	1,9	1,8

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2019ko abuztua

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,3	1,9	1,8	2,1	3,7	3,7
Japonia	0,9	0,3	0,5	0,6	2,4	2,4
Kanada	1,4	1,7	2,0	2,0	5,7	5,8
Europar Batasuna	1,3	1,4	1,5	1,6	—	—
Eurogunea	1,1	1,2	1,3	1,4	7,6	7,4
Alemania	0,6	1,2	1,5	1,6	5,0	4,9
Frantzia	1,3	1,2	1,2	1,4	8,4	8,2
Erresuma Batua	1,2	1,2	1,9	2,0	3,9	4,1
Italia	0,0	0,4	0,8	1,1	10,4	10,4
Espainia	2,3	1,8	0,9	1,2	—	—
Herbehereak	1,6	1,5	2,5	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.